

SESSION 2014

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

**Section : LANGUES RÉGIONALES
BASQUE**

COMMENTAIRE DIRIGÉ ET TRADUCTION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Le commentaire dirigé et la traduction sont à rédiger sur des copies distinctes.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

1-COMMENTAIRE DIRIGE

Jon Miranderen bi testu hauetan azal ezazu zernolakoak diren sinbolismoaren aztarnak galdera hauei erantzunez :

1. Ametsaren tematika nola karakteriza daiteke bi testuetan ?
2. 'Korrespondentziak' nola agertzen ote dira errealitatearen eta ametsaren artean?

Lehen testua :

Epaillako egun bat zen. Sartaldetik zetorren aizeak, itsasoko oiarzunen ekarle, makur erazten zituen parkeko zuaitz illunak sala-leioaren aurrean; intzirika ari ziran, eta iñarosten ziran ontzi-mastak izan bailirakean ekaitz baten jostagaillu. Ba zirudian gizabiotz baten amets maiteena, ontzi-irudi heietan emanaz, urrutira eramango zutela, beti urrutirago amets orok loratze ta betegintzarre duen ugarte doatsuetaraino... Bainan aizea erortzen zenean eta gauko odei lodien artetik illargiak bere arpegi maltzurra irkaitzez erakusten zuelarik, berriz ere urkabe biurtzen ziran zuaitzok, zut, gora, mugitu gabeak zeru beltzari kontra. Epaillako egun bat otza, epai-egun bat bezelakoa, pentsatzen zuen gizonak, kanpora begira; beleek baizik etzuten uts egiten... aski goizik hor izango ziran ordea, haren amets il-bearraz asetzero etorririk. Bat zekusan jadanik, begiak barruko aldera inguratzen zituen aldika: neskame zaarra hor zebillan beltzez jantzia ezpain meeak tinkaturik eta mutiri, etxeko jaunak eragozten ziolako maia eraikitzen ziardularik. Bainan gizona ez zen igitu, eta atsoari beste naigabe bat ematea gatik, agindu zion edatera ekarri zezaion bereala.

[...]

Txinpartak ke-bidean gora jauzten ziran, sorgin ongille batek deituriko pamerial alaiak irudi. Gizonak inguratu zituen begiak leiotik suaren aldera. Sutondoan, zitzailluan jarririk zegoen Theresa, eta garrek haren itzal lerdena dantza erazten zuten ormaren gainean. Irakurtzen ari zen, aoa erdi zabalik eta begiak liburutik urbillegi, aur gazteek oi dutenaz. Noizetik noizera, txinpart batek besteak baino biziago urrez erraustatzen zituen haren ille-txorta barneko illun-nabarrean gorritzka ageri zirenak, eta noizetik noizera, gar luzeago batek haren aztal ezta miatzkatuz, aldera inguratzen zen aspera ito batekin. Ba zirudian bere gogoa oro irakurtzen ari zen liburu lodi, azal gorrikoan zeukala, bainan gizonak begiratzen ziolarik, begiak eraiki zituen aurrak eta so egin zion aita besoetakoari irripar erabeti batekin. Irriparrea biurtu zion gizonak, ez zen ordea deusen esatera ausartu, eta Theresak bere liburua artu eta berriz ere irakurtzeari lotu zen, matraillak piska bat gorriturik, suaren beroaz agian.

Elkarri so egon ziren ereti labur hartan, aurraren begi nabar zoargiak harenei erantsiak gelditu ziren betikotasunaren memento hartan, zer esan, zer adi eraz zezakean? Gorputza ikara zeukala eta sutan gogoa, ez egurrezko su alaiaren garrez bainan izaerazko suaz, lurra, aizea ta ura antzaldatzen eta moldatzen dituen —aragia den lurra, gogoa den aizea eta arima den ura... Ur zabal bat, itsas-ontzi batzu thesaurez kargatuak haren gainean baitabiltza Sartalde errimipizle batetik etorriak, Byzantziako urre ta zillar guztiak baino dirdaitsuago, Ispahango lore guztiak baino usaindunago diren thesaurez zamatuak... Gizonak, Theresari begira zegoelarik, bere errimiñaren jaioterri hura zekusan barruko begiekin, eta bere amets ezin esanezkoari egoak aske uzten zizkion Sartaldeko ugarte doatsu heietaraino ereman zezan, Gazteen Lur ezkutatu hartaraino. Zoritxarrez! irudimenaren solas bat zen hori, soilki, bai baitzekien harentzat ametsa sekula ez zela egintzaren senide izango...

Jon Mirande, *(H)aur besoetakoa*, Jon Mirande. Pamiela, (1970) 1987

Bigarren testua:

UNDINA

Itxaso urrunen harmonietan
uhinen alhaba jaio zinaden.
Geroztik zabilta zure orhoitzan
izaro gardenak ezin eriden,

Eguerdi handiko iguzki-sapak
erre izaroak. Hegoialderantz
itxasneskak dantzan —zure ahizpak—
dihardute hantxe, bainan zuk ahantz...

Eta, dela hantxe zohardi thipil
uhin geldituen gainean, gauetan,
itxasneskak oro, elkhar maitez, bil
deitez leihorrerat argizaritan.

Zuk ahizpen dantzak utzi dituzu,
irrikaz jin zara izotz-aldera;
elhur, iphar-haize, gaupe odeitsu
hor dituzu: gure ganat jin zara.

Geroztik zabilta gure iphartar
itxaso hotzetan. Noizetik behin
beha zagozkigu, bihotzean har;
eta guk so' ginda bazoaz arin.

Ontzitan jarraikiz gizon-ametsa...
...bainan alpherretan ihes joan zoaz
et' itxaslariak, beldur itxesa,
itzuli behar du arraun-indarraz.

Minetan daukazu giza-gogoa,
ainigma zaitugu adimenentzat.
Nor zara? Ala bethi gezurrezkoa?
Gogorapen, ala irudi soil bat?

Jon Mirande

Iturria: *Ilhun-argiak / Claroscuros*, Jon Mirande (Felix Maraña eta Felipe
Juaristiren edizioa). UPV-EHU, 1992.

2-TRADUCTION

Version

Eskual-Herria ohakotzat; Eskual-Herria hobitzat: Eskualdunari bihotzak ez derroko bertzerik.

Hanbatenaz ere non, zerbeit ikusi eta pairaturik heldu baitira guziz gehienak gibelerat. Etxetik urrun du egiazki ikasten gizonak, nehon egitekotz, zer den gosea, zer egarria, zer bizkar hezurraren, oinen, gerruntzearen bermatzea, kopetako izerdi arau nola den ahultzen gemena; zenbat duen, luzara, gogoa uzkuratzen eta higatzen gorputza nausien azpiko egoiteak...

[...]

Behazu mutiko gazte haur hotz Ameriketarat abian den horri, bizkarrean makilatik dilingo soineko puxka batzu deramatzalarik... Ez daki zer erran, ez norat joan, ez nun geldi. Bideko dirua doidoi bildua dakote etxeok, bizpalau bortz-liberakok baitaukate soberakin guzia.

[...]

Balitz Eskual-herrian ahur bat gizon, arrotzerat doazin haurrak bil litzazkena, diruz guti edo aski dunt, elhe onez susta, jan edan ala etzantzaz garbiki ostata, etxetik untziraino artzain zuhur baten menean hel, hau aitzineko: etzautzu iduri egintza ederrenetarik bat litakela, haur batzuer esku emaite hori?

Dunt: munir, approvisionner.

Jean Etxepare, *Buruxkak*, 1910

Thème

Si à force de réfléchir sur mes dispositions intérieures je parviens à les mettre en meilleur ordre et à corriger le mal qui peut y rester, mes méditations ne seront pas entièrement inutiles, et quoique je ne sois plus bon à rien sur la terre, je n'aurai pas tout à fait perdu mes derniers jours. Les loisirs de mes promenades quotidiennes ont souvent été remplis de contemplations charmantes dont j'ai regret d'avoir perdu le souvenir. Je fixerai par l'écriture celles qui pourront me venir encore; chaque fois que je les relirai m'en rendra la jouissance.

[...]

Du reste, toutes les idées étrangères qui me passent par la tête en me promenant y trouveront également leur place. Je dirai ce que j'ai pensé tout comme il m'est venu et avec aussi peu de liaison que les idées de la veille en ont d'ordinaire avec celles du lendemain. Mais il en résultera toujours une nouvelle connaissance de mon naturel et de mon humeur par celle des sentiments et des pensées dont mon esprit fait sa pâture journalière dans l'étrange état où je suis.

J.J. Rousseau, *Les Rêveries du promeneur solitaire* (1776-1778)